

# 2019ko finantza- kontrolerako urteko plana

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	<b>2</b>
<b>2. FINANTZA-KONTROLA GAUZATZEAREN ESPARRUA ETA EDUKIA</b>	<b>2</b>
<b>3. FINANTZA-KONTROLERAKO BETEBEHARRAK IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAN</b>	<b>4</b>
<b>4. IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN ETA SCPSA-REN GAINEAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK, FINANTZA-KONTROLAREN ERAGINETARAKO</b>	<b>4</b>
<b>5. 2019KO FINANTZA-KONTROLERAKO URTEKO PLANA</b>	<b>5</b>
<b>6. FINANTZA-KONTROLERAKO URTEKO PLANA ALDATZEA</b>	<b>7</b>
<b>7. TXOSTENAK ETA EKINTZA-PLANA EGITEA</b>	<b>7</b>

## 1. SARRERA

Joan den uztailaren 1ean, 424/2017 Errege Dekretua sartu zen indarrean, apirilaren 28koa, Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duena (424/2017 ED). Araudi honetan, berrikuntza moduan, finantza-kontrolaren plangintza egokia gauzatzeko premia eta betebeharra nabarmentzen da. Hartara, Errege Dekretuaren 31. artikuluan hau ezartzen da:

*1. Organo kontu-hartzaileak Finantza-kontrolerako urteko plan bat egin beharko du, eta bertan bilduko ditu ekitaldian egin beharreko etengabeko kontroleko eta auditoretza publikoko jarduketak.*

*2. Finantza-kontrolerako urteko planak barnean hartuko ditu, batetik, legezko betebeharrak baten ondorioz organo kontu-hartzaileak egin beharrekoak diren jarduketak guztiak, eta, bestetik, helburuak, ekitaldi bakoitzeko lehentasunak eta eskura dauden bitartekoak aztertzen dituen arrisku-analisi batean oinarrituta urte urte aukeratzen diren jarduketak. Helburu horietarako, planaren barnean sartuko dira Araudiko 29.4 artikuluan aipatzen diren jarduketak.*

*(...)*

*3. (...). Hala egindako Finantza-kontrolerako urteko plana Osoko Bilkurara bidaliko da, informazioa emateko eraginetarako.*

*(...)*

## 2. FINANTZA-KONTROLA GAUZATZEAREN ESPARRUA ETA EDUKIA

424/2017 Errege Dekretuaren 3.1 artikulua arabera, tokiko sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren barne-kontrola –eta bertan, kontu-hartzailetzako eginkizunaz gain **finantza-kontrola** ere sartzen da– Toki Erakundeko **organo kontu-hartzaileari** egotzita geldituko da.

Finantza-kontrola gauzatzeko formak 424/2017 Errege Dekretuaren 29. artikuluko 1. atalean zerrendatzen dira:

*1. Tokiko sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren finantza-kontrola **etengabeko kontrola** eta **auditoretza publikoa** gauzatzearen bidez egingo da.*

*Bi modalitate horiek barnean hartuko dute efikazia- edo eraginkortasun-kontrola. Hau da, egiaztatu egingo dira programatutako helburuen betetze-maila eta zerbitzuen kostua eta etekina, betiere tokiko baliabide publikoak erabiltzean indarrean dauden efizientziari, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko printzipioei jarraituta.*

Artikulu bereko 2. atalak **etengabeko kontrolaren** esparru subjektiboa eta hedadura definitzen du:

2. *Etengabeko kontrola egin ahal izango da **eginkizun kontu-hartzailea aplikatzen zaien tokiko entitatearen eta organismo publikoen gainean**. Izan ere, haren helburua da etengabe egiaztatzea tokiko sektore publikoaren egoera ekonomiko-finantzarioaren funtzionamendua bat datorrela ordenamendu juridikoarekin eta kudeaketa finantzario onaren printzipio orokorrekin, azken batean xedea baita kudeaketaren ekonomia-, finantza-, ondare-, aurrekontu-, kontabilitate-, antolaketa- eta prozedura-alderdiak hobetzea. Horretarako, kontrol organoak auditoretza-teknikak aplikatu ahal izango ditu.*

*Etengabeko kontrola gauzatzeak barnean hartzen ditu, batetik, Finantza-kontrolerako urteko planean jasotzen diren kontrol-jarduketak, eta, bestetik, ordenamendu juridikoak organo kontu-hartzaileari esleitzen dizkion jarduketak.*

Era berean, 3. atalak **auditoretza publikoaren** edukia garatzen du, bere hiru modalitateen bidez:

- **Kontuen auditoretza.** Haren xedea da egiaztatzea urteko kontuen bidez ondarearen, finantza-egoeraren, erakundearen emaitzen eta, hala badagokio, aurrekontua betetzearen irudi leiala islatzen ote den, alderdi esanguratsu guztietan, hari aplikagarri zaizkion kontabilitate- eta aurrekontu-arau eta -printzipioekin bat eginez, eta, baita ere, urteko kontuetan haiek egoki interpretatu eta ulertzeko behar den informazioa ematen ote den.
- **Betetze-auditoretza.** Bere helburua da egiaztatzea ekonomia- eta finantza-kudeaketako egintzak, eragiketak eta prozedurak haiei aplikagarri zaizkien arauei jarraituz gauzatu direla.
- **Auditoretza operatiboa.** Bere xedea da sistematikoki eta objektiboki aztertzea antolakunde, programa, jarduera edo funtzio publiko baten eragiketak eta prozedurak. Zehazki, helburua da balorazio independente bat egitea haien finantza- eta ekonomia-arrazionaltasunaz eta kudeaketa onaren printzipioekiko egokitasunaz, betiere balizko akatsak detektatu eta gomendio egokiak proposatze aldera.

Aplikatzeko esparru subjektiboari dagokionez, 424/2017 Errege Dekretuak, batetik, kontuen auditoretzaren eta, bestetik, betetze-auditoretzaren eta auditoretza operatiboaren arteko bereizketa egiten du.

**Kontuen auditoretzari** dagokionez, 29. artikulua berak jasotzen du tokiko erakundeko organo kontu-hartzaileak urtero egingo duela hauen urteko kontuen auditoretza: a) Tokiko organismo autonomoak, b) Tokiko erakunde publiko enpresarialak, c) Beren berriazko araudiaren bidez auditoretza egitera behartuta dauden tokiko sektore publikoko fundazioak, d) Araudi bereko 2.2 artikulua aipamena egiten dien funtsak eta partzuergoak, eta e) **Auditoretza egitera behartuta ez dauden** eta auditoretzen urteko planean jasota dauden tokiko sektore publikoko merkataritza-sozietateak eta -fundazioak.

**Betetze-auditoretzari** eta **auditoretza operatiboari** dagokienez, artikulua berak jasotzen du **etengabeko kontrolaren mende ez dauden tokiko sektore publikoko erakundeetan egingo direla eta azken batean xedea dela kudeaketaren ekonomia-, finantza-, ondare-**

, *aurrekontu-, kontabilitate-, antolaketa- eta prozedura-alderdiak hobetzea*. Esan daiteke auditoretza hauek eratuta daudela etengabeko kontrolaren kontrol-modalitate alternatibo moduan eta, azken batean, eginkizun kontu-hartzailearen kontrol-modalitate alternatibo moduan, haiek aplikatzeko esparru subjektiboa haiek heltzen ez diren tokiko sektore publikoko zatia baita.

### **3. FINANTZA-KONTROLERAKO BETEBEHARRAK IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAN**

Plan honen eraginetarako, Iruñerriko Mankomunitatearen “kontrol-perimetroak” barnean hartzen ditu erakundearen beraren jarduketak eta bai Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. (SCPSA) bere sozietate kudeatzaileak gauzatutakoak ere.

Tokiko erakundea denez, Iruñerriko Mankomunitatearen izaera erabat administratiboa da, eta, bere berariazko jardueren kontrolari dagokionez, eginkizun kontu-hartzailea eta, ondorioz, **etengabeko kontrola**, gauzatzearen mende dago.

SCPSA, ordea, merkataritza-sozietatea da, gainera, “finantzazkoa ez den sozietate” moduan sailkatuta dagoena “Tokiko Sektore Publikoko Erakundearen Inbentarioan” (Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioa MINHAFP) eta “Finantzazkoak ez diren sozietate publikoak: Tokiko Administrazioa” S.11001 azpisektorean sartuta, Kontabilitate Nazionalan (IGAE) sailkatzeko eraginetarako. Horrenbestez, ez dago eginkizun kontu-hartzailearen eta, ondorioz, etengabeko kontrolaren mende. Bere tamaina aintzat hartuta, SCPSA behartuta dago bere urteko kontuak kanpoko auditoretzaren mende jartzera (Kapitaleko Sozietateen Legearen testu bateratua onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 263. artikulua), eta, horrenbestez, 424/2017 Errege Dekretuan xedatutakoaren eta aurreko atalean jasotakoaren arabera, ez da beharrezkoa erakundeko organo kontu-hartzaileak aldi behin kontuen auditoretzak egitea. Ostera, organo kontu-hartzailea badago behartuta bere jardueren eta programen gaineko **betetze-auditoretzak** eta **auditoretza operatiboak** egitera.

### **4. IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN ETA SCPSA-REN GAI NEAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK, FINANTZA-KONTROLAREN ERAGINETARAKO**

Erakundearen Finantza-kontrolerako urteko planaren ikuspegia eta eraketa zehaztu aurretik, ondoko alderdi hauek hartu behar ditugu kontuan:

- IMren eta SCPSAren egitura, tokiko erakunde/mendeko merkataritza-sozietate moduan ulertua, piti bat atipikoa da, aintzat hartzen badugu eragiketen bolumen handiena (%80 inguruan termino ekonomikoetan) mendeko sozietatean gertatzen dela eta askoz ere neurri txikiagoan erakunde nagusian.
- Aurreko hori are agerikoago egiten da eskuragarri dauden giza baliabideei dagokienez: 2017aren amaieran sozietatean lanean ari ziren pertsonak 475 ziren; Mankomunitateko lanpostuen hornidura, ordea, soil-soilik 6koa da. Eta sei horietatik bakarra baino ez dago kontu-hartzailetzako lanetara izendatuta, eginkizunaren titularra bera.

- 424/2017 Errege Dekretuan xedatutakoa aplikatzekoa den lehen ekitaldia da, eta, egile askoren arabera, tokiko barne-kontrolaren kontzeptuaren aldaketa edo eraldatze garrantzitsua dakar eta erronka da tokiko erakundeetako fiskalizazio- edo ikuskatze-organoetarako. Hortaz, egokitze prozesua eskatzen du, zenbait hilabetetik askoz harago doana.
- Alderdi positibo eta on moduan, esan daiteke finantza-kontrolak, gutxienez kontuei eta finantza-egoerei dagokienez, ezartze-maila handia duela erakunde osoan. Kanpoko auditoreek kontuak urtero berrikustea etenik ez duen jarduna da Mankomunitatea bera sortu zen unetik, egun SCPSAk bere buruari auditoretza egiteko duen sozietate-betebeharra jaio aurretik. Eta jardunbide horrek erakunde osoa hartzen du. Hartara, urtero jaulkitzen diren auditoretza-txostenak hiru dira: SCPSAren kontuena –aipatu den betebeharra betetzea dakar–, erakunde osoaren kontu bateratuena –kontabilitateko eta merkataritzako araudiaren arabera egindakoak– eta erakundearen kontu orokorrarena –auditoretza publikoko irizpideen eta arauen pean egindakoa– .

## **5. 2019KO FINANTZA-KONTROLERAKO URTEKO PLANA**

Aurreko atalean azaldu diren alderdi horietan oinarrituta, ondorioztatu behar da aurrez aurre erronka garrantzitsu bat dagoela, berekin dakarrena kultura-aldaketa eta gaitasun teknikoko aldaketa nabarmen bat eta erantzukizuna oso baliabide zuzen eskasak dituen eginkizun bati egotzen zaiona.

Premisa horien pean, ulertzen dugu kontrol-jarduketa jakin batzuk programatzea bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa dela –hori da Finantza-kontrolerako urteko planerako Araudian aurreikusitako edukia– erakunde osoan Tokiko Barne Kontrolaren eskakizun berriei erantzun egokia eta gogobetegarria emango dien egokitze-prozesua bururatzeko hartu beharreko neurriak kontuan hartzea.

Hori dela-eta, 2019ko finantza-kontrolerako urteko plana bi bloke nagusitan zatitu da, hauetan:

- A.- Erakunde osoaren Barne Kontrolaren ingurunea berriro aztertu eta egokitzea.
- B.- 2019ko finantza-kontrolerako berariazko jarduketak.

## **A.- ERAKUNDE OSOAREN BARNE-KONTROLAREN INGURUNEA BERRIRO AZTERTU ETA EGOKITZEA.**

### **A.1. Mankomunitatearen berriazko esparruan**

A.1.1. Izapidetze- eta ikuskatze- edo fiskalizazio-prozedurak eguneratzea.

Eginkizun kontu-hartzailea gauzatzea sendotzea. Barnean hartzen du espediente-mota desberdinen izapidetze- eta ikuskatze-prozedurak berrikusi eta eguneratzea, modelizatzea, dokumentatzea eta banatzea, arreta berezia jarrita legezko berrikuntza berrienetan (kontratatzea, publizitatea, gardentasuna, eta abar).

Zuzenean egiten du Kontu-hartzaileak, Idazkaritzarekin eta Aholkularitza Juridikoarekin elkarlanean arituta.

Lehen lauhilekoan egiten da, espediente ohikoenak barne hartzen dituen lehen fase batean.

### **A.2. SCPSAren esparruan**

A.2.1. Barne Kontrolaren diagnostiko globala SCPSAn.

SCPSAn Barne Kontrolak egun duen egoeraren deskribapen orokorra (prozeduren eskuliburuak, prozesuen mapak, eta abar). Arriskuen analisiak.

Kontu-hartzaileak eta SCPSAko Antolaketarako Arloa.

2019ko lehen hiruhilekoa.

A.2.2. Eginkizunak berriro aztertu eta egokitzea.

SCPSAren esparruan eskuragarri dauden giza baliabideen analisia, bere eginkizun oso edo zati moduan, Mankomunitatearen Kontu-hartzaileari laguntza ematea beren gain hartu ahal izango luketenak, finantza-kontrolaren jarduketak egitean edo, areago, etengabeko kontrolekoak eta eginkizun kontu-hartzailea gauzatzean. Egokia bada, prestakuntza-beharrak zehaztea eta SCPSAren Prestakuntza Planean sartzea.

Kontu-hartzaileak eta SCPSAko Antolaketarako, Finantzarako eta Giza Baliabideetarako arloak.

2019ko lehen eta bigarren lauhilekoa.

## **B.- 2019KO FINANTZA-KONTROLEKO BERARIAZKO JARDUKETAK.**

### **B.1. Etengabeko kontrola**

B.1.1. Diru-laguntzak.

Iruñerriko Mankomunitateak emandako diru-laguntzak *a posteriori* edo ondoren berrikustea, auditoretzako eta laginketako teknikak aplikatuta. Barnean hartzen du bai izapidetzea eta ematea, bai eta diru-laguntza egoki aplikatzea ere.

Kontu-hartzailletza, Aholkularitza Juridikoaren lankidetzarekin.

## **B.2. Betetze-auditoretza**

### **B.2.1. Kontratitze-espedituentak.**

Auditoretzako eta laginketako teknikak aplikatuta, kontratatze-txostenak *a posteriori* edo ondoren berrikustea, aplikatzekoak zaizkien arauen arabera garatu direla egiaztatze helburuarekin. Jarduketa honek sinergia-maila handia du A.1.1. "Izapidetze- eta ikuskatze- edo fiskalizazio-prozedurak eguneratzearekin", haren zati handi bat kontratatze-prozesuetara bideratuta egongo baita.

Kontu-hartzailletza, Aholkularitza Juridikoa eta SCPSAko Erosketen Saila.

2019ko bigarren lauhilekoa.

## **B.3. Auditoretza operatiboa**

### **B.3.1. Tokiko azpiegitura-planak kudeatzea.**

Tokiko azpiegitura-planen konturakoak diren diru-laguntzak izapidetzeko prozesuak eta emaitzak berrikustea.

Kontu-hartzailletza eta SCPSAko Finantzetarako eta Proiektu eta Obretarako arloak.

2019ko hirugarren lauhilekoa.

## **6. FINANTZA-KONTROLERAKO URTEKO PLANA ALDATZEA**

Finantza-kontrolerako urteko plana aldatu ahal izango da kontrolak gauzatzearen ondorioz, legezko eskaera edo agindu baten kariaz, kontrolaren xede diren erakundearen egituraren aldaketak izan direlako, ez dagoelako nahiko bitartekorik edo behar bezala haztatutako beste arrazoi batzuegatik. Finantza-kontrolerako urteko plan aldatua, informazioa emateko helburu eta eraginetarako, Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusira bidaliko da.

## **7. TXOSTENAK ETA EKINTZA-PLANA EGITEA**

Etengabeko kontroleko jarduketan eta auditoretzetako bakoitzaren emaitza (plan honetako B blokean jasotakoak) txosten idatzietan dokumentatuko da, eta haietan argi, objektiboki eta modu haztatuan azalduko dira berrikusitako egintzak, lortutako ondorioak eta, egokia bada, kontrolaren xede diren jarduketei buruzko gomendioak.

Halaber, berehalako zuzentze-jarduketa baten bidez konpondu behar diren gabeziak adieraziko dira, eta kontrolerako hurrengo jarduketetan haiek gauzatu direla egiaztatu beharko da (424/2017 Errege Dekretuaren 35.1 artikulua).

Organo kontu-hartzaileak kontrolatutako ekonomia- eta finantza-jardueraren kudeatzaile zuzenari bidaliko dizkio finantza-kontrolaren behin betiko txostenak, eta hark egokiak diren alegazioak egin ahal izango ditu. Alegazio horiek eranskin gisa sartuko dira txostenean.

Txostena, alegazioekin batera, Mankomunitateko lehendakariari bidaliko zaio, eta, azken horren bidez, Batzar Nagusiari, bere berri izan dezan. Txostenaren analisisa gai bat izango da eguneko aztergaietan, dagokion osoko bilkura egiten denean (424/2017 Errege Dekretuaren 36.1 artikulua).

Plan honetako A blokean jasotako jarduketak, finantza-kontrolerako jarduerak berez esanak ez direnez, ez dituzte ekarriko berekin berariazko txostenak.

Urtero eta kontu orokorraren onarpena dela-eta, organo kontu-hartzaileak barne-kontrolaren emaitzen laburpen-txostena egin beharko du. Laburpen-txosten hori Batzar Nagusira bidaliko da, Mankomunitateko lehendakariaren bidez (424/2017 Errege Dekretuaren 37. artikulua).

Mankomunitateko lehendakariak ekintza-plan bat formalizatuko du, eta bertan barnean hartuko dira laburpen-txosten horretan agerian jarri diren ahuleziak, akatsak, erroreak eta ez-betetzeak zuzendu edo konpontzeko hartu beharreko neurriak. Ekintza-plana gehienez 3 hilabeteko epean prestatuko da, laburpen-txostena Batzar Nagusira bidaltzen denetik aurrera. Planean jaso beharko dira hartutako neurri zuzentzaileak, haiek abiarazteko arduraduna eta gauzatu beharreko jarduketaren egutegia, bai Mankomunitatearen beraren kudeaketari bai eta SCPSA bere sozietateari dagozkionak ere. Ekintza-plana Mankomunitateko organo kontu-hartzaileari bidaliko zaio, aipatutako akatsak zuzentzeko egokiera eta, hala badagokio, lortutako emaitzak balora ditzan. Batzar Nagusiari jakinaraziko dio zer egoeratan dagoen barne-kontrollean agerian jarritako ahulezien zuzenketa. Hartara, aukera emango da Batzar Nagusiak aldian behingo jarraipena egiteko ekonomia- eta finantza-kudeaketa hobetzeko hartutako neurri zuzentzaileei (424/2017 Errege Dekretuaren 38. artikulua).